# MEREZIMENDUAK ALEGATZEKO FASERAKO LAGUNTZA-GIDA

**FASE HONETAN IZEN-EMATEAN ALEGATUTAKO ETA FASE HONETAN EGIAZTATUTAKO MERITUAK SOILIK BALORATUKO DIRA.**

**Gida honek ez du zehazki erakusten merituen egiaztapen fasea egitean pantailan agertuko dena; izan ere, prozesuaren pausu bakoitzean azalduko denaren hurbilketa bat baino ez da.**

**Gida honen helburua izangaiek merituak erraz egiaztatu ahal izatea da.**

Merezimenduak egiaztatzeko eskabidea izangaiaren atariaren bitartez egingo da.

**Garrantzitsua da** jakitea **titulazio GUZTIAK egiaztatu behar direla, esperientzia eta gainerako merituak meritu gisa kontuan hartzea nahi baduzu.** Izen-emate epea amaitu aurretik alegatu ez ziren eta orain hasiko den merezimendu-epean EGIAZTATZEN EZ DENA EZ DA baloratuko hartuko da.

**Eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen lortutako merezimenduak ebaluatuko dira, hau da, 2025/12/23a baino lehen lortutakoak (4.1 eta 9.2 Oinarriak)**

Lehenik eta behin, BakQ gakoarekin "Nire deialdiak" atalera sartu beharko zara, eta gero, lauki gorrian agertzen den "Merezimenduak" botoiari eman.




Atal bakoitzaren barruan, deialdia egin duen Administrazioak egiaztatuta dituen titulazioa, esperientzia eta gainerako merezimenduak erakutsiko ditu sistemak.

Agertzen ez den **titulazio, esperientzia edo merezimendu** oro **gehitu** eta egiaztatu **beharko du** izangaiak meritu gisa kontuan hartu dadila, eta, ondoren, dokumentu bidez ziurtatu beharko du.

1) TITULAZIOAK

**1.A. – Sartzeko titulazioa**

**<u>"Sartzeko titulazioa"</u>** pantailan hautaketa prozeduran parte hartu ahal izateko erabilitako titulazioa agertuko da.




**1.B.- Meritu modura baloratzeko titulazioak**

Interesdunak "*titulazioa*" atala meritu modura baloratzea nahi badu, betiere, izen-emateko momentuan alegatu badu, *"Deialdia egin duen erakundean dagoen titulazioa meritu modura alegatu nahi dut"* botoia sakatu beharko du.

Deialdia egin duen erakundean dagoen titulazioari dagokionez, titulazio hori zerrendan agertzen bada, aukeratu eta "*alegatu*" botoia sakatu.

Erakundean jasota ez dauden beste titulazio batzuk baloratzea nahi izatekotan, sakatu "*gehitu*" botoia eta titulazio hori aukeratu ostean, titulu hori lortu duzun data adierazi eta "*gorde*" botoian sakatu.

Titulazio bakarra baloratuko da, eta, aurkeztutako titulazioetatik maila gorago koena duena izango da baloratuko dena. (9.4.1. Oinarria)




2) HIZKUNTZAK

Aurreko atalean bezala egin beharko da.

Hizkuntza bat gehitzen bada, sistemak ez du aukerarik ematen hizkuntza bereko maila desberdineko bi hizkuntza-titulu alegatzeko. **Goragoko maila bakarrik hautatu** eta titulazio hori lortu den data gehitu beharko da.



3) EUSKARA

Atal honetan, ETZEBn dagoen euskararen hizkuntza-eskakizuna agertzen da.

Zure euskara mailaren ziurtagiria ETZEBn jasota ez badago, *“Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan (ETZEB) jasota ez dagoen titulazio bat gehitu nahi dut”.* atala aukeratu eta adierazi beharko duzu zein den duzun Euskara maila eta haren lorpen data.

Hautaketa-prozesuaren barruan deitutako Euskararen balorazio deialdian parte hartu baduzu, prozesua amaitzean, zuzenean jarriko dira datuak Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan (ETZEB).

Informazio gisa, adierazi behar da euskara-mailaren titulua ETZEBn jasota ez badago, baina salbuespenen bat baduzu DBH, batxilergoko ikasketak, unibertsitate-ikasketak edo doktoregoak euskaraz egin dituzulako, edo titulua Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko hizkuntza-eskola ofizial batean lortu duzulako, salbuespen-ziurtagiria eskatu beharko duela bere ikastetxean, eta, ondoren, Hezkuntza Sailera bidali beharko duela, ETZEBn gehitu ahal izateko. hezkuntza.tituluak@euskadi.eus erregistroan sartzeko.






## 4) EMANDAKO ZERBITZUAK

4.A. - Administrazioan Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako agente gisa agertzen den esperientzia soilik erakusten da.

Meritu gisa kontuan hartu nahi dituzun zerbitzu GUZTIAK hautatu beharko dituzu eta "Alegatu" aukerari eman.






4.B. - Udaltzaingoan emandako zerbitzuak gehitu nahi izatekotan, sartu "Nire esperientzia profesionala" atalean, eta klikatu hemen:




Beste ziurtagiri bat gehitu nahi baduzu, klikatu hemen:



## 5) LABURPENA

Azkenik, hurrengoan, eskaeraren laburpena aurkituko dugu, eta bertan berrikusi beharko da egindako alegazio bakoitza.

Laburpen horretan, eskabidean alegatu den guztia jasotzen da, eta **garrantzitsua da gogoraraztea titulazioak, esperientzia eta alegatutako gainerako merezimenduak baino ez direla baloratuko, eta alegatu ez dena baloraziotik kanpo geratuko dela**.

Ondoren, informazio guztia zuzena dela egiaztatzen denean, “Bidali” botoia sakatu beharko da.



EU - ERTZAINTZA P35

Eskaera egiteko urratsak

- Titulazioak
- Hizkuntzak
- Euskara
- Emandako zerbitzuak
- Laburpena

Laburpena

Mesedez, berrikusi agertzen den informazioa. Zuzena bada, "Bidali" botoia sakatu. Ondoren, eskaera amaitutzat emateko, eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da, baldin eta administrazioan jasota ez badago.

Titulazioak

**Sartzeko titulazioa**

Eskatutako maila akademikoa: **Batxilergoa, 2. mailako LH edo baliokidea**
Deialdia egin duen erakundeak duen titulazioa
Itsasgintza Zibileko diplomatura

**Merezimendu modura alegatu nahi diren titulazioak**

**Alegatutako titulazioa** Basogintzako Ingeniaritza Teknikoa - Paper-industria 2000/06/04

**Alegatutako titulazioa** Itsasgintza Zibileko diplomatura 2021/01/01

Hizkuntzak

**Alegatutako titulazioa** Alemanera C1 2000/06/05

**Alegatutako titulazioa** Ingelesa B2 2021/01/01

Euskara

**Alegatutako hizkuntza-eskakizunik handiena:** Euskera B2 (2HE)

**Lorpen-data:** 2026/06/03

Lan-esperientzia

**Merezimenduak**

documento4.pdf

Estatuko Administrazioa 2012/06/05 - 2016/06/05 IKUSI GEHIAGO

doc_prueba_1 (5).pdf

Unibertsitateak 1990/06/03 - 1991/06/03 IKUSI GEHIAGO

Unibertsitateak 2000/06/04 - 2000/06/04 IKUSI GEHIAGO

Honako merezimendu hauek alegatzen ditut:

Eusko Jaurlaritza 2024/02/01 - 2026/06/03 IKUSI GEHIAGO

‹ AURREKOA BIDALI ›

## 6) DOKUMENTUAK AURKEZTEA

Atal honetan, AURRETIK ALEGATUTAKO GUZTIAREN dokumentuak igo behar dituzu.

Momentu hau oso garrantzitsua da, izan ere, orain igo beharko dituzu aurretik alegatutako eta aukeratutako dokumentu guztiak.




## 7) EGIAZTAGIRIA

Dokumentuak aurkezten amaitu ondoren, «*Hurrengoa*» fitxan klik egin beharko da. Bertan, eskaera sortu dela agertuko da, eta egiaztagiri bat deskargatu ahal izango da, «*Egiaztagiria*» fitxan klik eginda.




***Eskabidea aldatu ahal izango da merezimenduak alegatzeko epea irekita dagoen bitartean. Egindako azken aldaketa gordeko da.***